

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Elkartek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2026an egiten dituzten gizarte eta kultura ekimenak eta kirol ekimenak finantzatzeko laguntzen deialdia jasotzen duen 2026ko martxoaren 10eko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 900949.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/900949>.

Deialdiaren xedea

2026. urtean gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko programak eta jarduerak egiten laguntzea, hain zuzen ere udalerrian egiten direnak edo udalerrientzat onuragarritzat jotzen direnak eta Udalaren urteko jarduna osatzen dutenak.

Diruz lagundu daitezkeen arloak:

1. Gizarte eta kultura sustapena.

— Kultura eta gizarte jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisialdi tailerrak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, baita parte hartzeko beste edozein kultura edo gizarte jarduera edo ekintza ere).

2. Kirol sustapena.

— Kirol jardueretarako laguntzak (lehiaketak, kirol ibilaldiak, txapelketak eta kirolarekin lotutako gainerako jarduera guztiak).

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

Herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen duten berriazko jarduerak.

Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.

Otorduen edo elikagaien gastuak, salbu eta produktu horiek zuzenean erabiltzen badira kirol jardueretako anoetarako eta behar bezala justifikatuta badaude.

Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorrek erostea, salbu eta diruz lagundutako jarduera egiteko behar-beharrezkoa den materiala, alde aurretik haren beharrezko balorazio teknikoa eginda.

Funtzionamendu gastuak (higiezinaren alokairua, langileen nominak, erregaia...).

Onuradunak

1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ezartzen duenaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta baldintza hauek betetzen dituztenak:

Egoitza udalerrian duten kirol elkarteak eta klubak, programak eta jarduerak udalerrian soilik egiten dituztenak.

Udalerrian kokatuta ez egon arren, udalak ezarritako edo mugakide den jarduera eremu batean gauzatzen diren gizarte, kultura edo kirol programak egiten dituzten kirol elkarte eta klubak, gutxienez tokiko hiru bazkide edo gehiago badituzte.

2- Donemiliagako udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, baldin eta dirulaguntzaren ematea justifikatzen duten jarduerak egiten badituzte.

3. Nortasun juridikorik izan ez arren, udalerrian kide kopuru handia erroldatuta duten pertsona fisikoen taldeak, dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak edo jarduerak egin ditzaketenak, hain zuzen ere, udalaren jarduna osatzen duten eta udalerrirako herri eta gizarte interesekotzat jotzen diren proiektuak eta jarduerak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2026ko martxoaren 10ean egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzak honako aurrekontu partida hauen kontura emango dira: 231.481.000 partidatik (Erretiratuen elkarteak) 2.672,25 euro; 334.482.000 partidatik (Kulturako dirulaguntzak) 1.710,00 euro; 341.482.002 partidatik (Kirol jardueretarako dirulaguntzak) 4.810,00 euro.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 24an amaituko da.

Erdoña, 2026ko apirilaren 22a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO